


OCW
PRAKTIKAK
FAMILIA-ORIENTAZIOA



designed by freepik.com

Irene Ibarra

Hezkuntzako Ikerkuntza eta Diagnosi Metodoak
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU/UPV)

PRAKTIKA GUZTIAK

Praktika 1: Genogramak interpretatzea eta egitea

Praktika 2: Jolas psiko-hezitzaileetara gerturatzea

Praktika 3: Marrazkietako erakusle emozionalak, alerta-zeinuak identifikatzea

Praktika 4: Familia-aniztasuneko zenbait gida ezagutzea

Praktika 5: Belaunaldien arteko harremanak: Bideo bat ikustea eta gida bat erabiltzea

Praktika 6: Irakurketa. Bitartekaritza guraso-hezkuntzako tailerretan.

Praktika 7: Bideo bat ikustea. Gurasoen hezkuntza-estiloak

Praktika 8: Bideo bat ikustea. Etxeko bixita bat.

Praktika 9: Bideo bat ikustea. Familia-terapia.


Praktika 10: Autoebaluazioa

Praktika 1: Genogramak interpretatzea eta egitea

Praktika honekin lortuko duzu, familiei buruzko informazioa modu antolatu eta erraz batean errejistratzea eta interpretatzea.

4. kapituloko 4.5 puntua erabiliko dugu, Informazioa biltzeko tresna metodologikoak: genograma, izenburua duena, ASKOREN ARTEAN [ONLINE]. *Eskuhartzea familia arazoaniztunetan*. Donostia: Elhuyar (2008). [Kontsulta: 2019-03-21]. Eskuragarri: <https://jakinbai.eus/edukiak/BizikidetzaArreta>

1. Zer dira genogramak eta zertarako erabiltzen dira?
2. Gai horretan ikusitakoaren arabera, zure genograma sortu, 3 belaunaldi barnebilduko ditu. Saiatuzaitetz baita harremanak irudikatzen, esanguratsuenak direnak (harreman hotzak, oso onak, gatazkatsuak...)
3. Interpretatu ondoko genograma hau.



1. Irudia. 2018-2019ko ikasturtean Leire Vega ikasleak eginiko genograma bat
4. Zein programa erabili daiteke genogramak ordenagailuarekin egiteko?

Laguntzarako fitxa

1. Zer dira genogramak eta zertarako erabiltzen dira?

Harreman batzuek lotzen dituzten kideez osatuta dago familia. Harreman horiek grafikoki irudika daitezke, genograma bat erabiliz. Pertsona baten familia-zuhaitza marraz daiteke, eta, horri esker, familiaren egitura eta harremanak grafikoki uler daitezke. Informazioa lehenengo elkarrizketan biltzen da, eta ondorengo elkarrizketetan aldatu egiten da, egituraren aldakuntzen eta uneko familia-harremanen arabera; izan ere, familia orok du bere historia propioa, eta hor aldaketak gerta daitezke (jaiotzak, heriotzak, kideen arteko harremanen aldaketak...).

2. Gai horretan ikusitakoaren arabera, zure genograma sortu, 3 belaunaldi barnebilduko ditu. Saiatuzaitetz baita harremanak irudikatzen, esanguratsuenak direnak (harreman hotzak, oso onak, gatazkatsuak...)

Erraza ala zaila iruditu zaizu? Informazio gehiago aurkitu dezakezu esteka honetan. Gainera, familiei buruzko informazioa erregistratzeko beste modu batzuk ezagutu ditzakezu, Ekomapa eta Apgar familiarra adibidez. Hau da esteka: <https://es.slideshare.net/evesava/genogramaecomapaapgar-familiarefecto-15327545>

3. Interpretatu ondoko genograma hau.

Banatuta dagoen bikote bat ikusten da genograma honetan. Bi seme ditu bikoteak, 10 eta 17 urtekoak hain zuzen eta elkarbizitza-nukleoa amarekin egiten dute, hau da, amarekin bizi dira. Zirkulu bikoitza duenari buruzkoa da genograma hau (bi semeen amari buruzkoa). Bi semeen arteko harremana gatazkatsua da eta amak bere gurasoekin eta ahizpa gazteagoarekin duen harremana hotza da.

4. Zein programa erabili daiteke genogramak ordenagailuarekin egiteko?

Geno-pro izeneko erabili daiteke. Hau da esteka: <https://www.genopro.com/es/>

Praktika 2: Jolas psiko-hezitzaileetara gerturatzea

Familia-orientazio jarduteko oso egokia izan daiteke jolasen bidez esku-hartzea. Praktika honekin merkatuan dauden jolas psiko-hezitzaile batzuk ezagutuko ditugu.

Irakurri itzazu interesgarriak iruditzen zaizkizun bi jolas (esteken bidez) eta deskribatu jolas bakoitzaren helburua/k, zein adinetan aholkatzen den jolastea eta jolaserako jarraibideak.

- 1) MENDIZABAL, N. *Zutani* [online]. [Kontsulta: 2019-03-22]. Eskuragarri: <http://www.hartueman.com/index.php>
- 2) BERG, B. Mi familia ha cambiado. [Kontsulta: 2019-03-22]. Eskuragarri: <http://www.web.teaediciones.ISENIUScom/Ejemplos/Juego%20Familia.pdf>
- 3) BISENIUS, N.J. & NORRIS, M. Adiós tristeza. [Kontsulta: 2019-03-22]. Eskuragarri: <http://www.web.teaediciones.com/Ejemplos/JUEGO%20ADIOS%20TRISTEZA.pdf>
- 4) MITLIN, M. El bingo de las emociones. [Kontsulta: 2019-03-22]. Eskuragarri: <http://www.web.teaediciones.com/Ejemplos/JUEGO%20BINGO.pdf>

GEHIAGO JAKITEKO: Jolas gehiago aurkitu dituzu Tea argitaletxearen toki honetan [Kontsulta: 2019-03-22]. Eskuragarri: <http://web.teaediciones.com/ESCOLAR-intervencion-juegos-terapeuticos.aspx>

Laguntzarako fitxa

Irakurri itzazu interesgarriak iruditzen zaizkizun bi jolas (esteken bidez) eta deskribatu jolas bakoitzaren helburua/k, zein adinetan aholkatzen den jolastea eta jolaserako jarraibideak.

1)ZUTANI: Jolas honen helburua sentimenduak eta beharrak identifikatzea da, Marshall Rosenberg-en komunikazio ez bortitzeko ereduan oinarrituta. 4 urtetik aurrerako umeekin jolasteko bada ere, haurren artean zein helduen artean jolasteko da. Jolaserako jarraibideei dagokionez, jolasak taula bat du. Binaka jolasten da. Batak besteari galderak eginez, bakoitza nola sentitzen den jakinarazten da. Lehenengo, sentimenduen kartak (berdeak) ikusten dira eta ondoren, beharren kartak (gorriak).

2)MI FAMILIA HA CAMBIADO: Jolas honen helburua hurrek eta nerabeek euren gurasoen banaketarekiko edo dibortzioarekiko jarrera desegokiak ezagutzea eta irtenbideak bilatzea da. 8 urtetik aurrerako haur eta nerabeekin jolasteko da. Jolaserako jarraibideei dagokionez, jolasten hasi aurretik parte-hartzaileak 36 item dituen galdeketa bat bete behar du. Galdeketa horrek umeak banaketarekiko zein jarrera duen erakusten du eta jolasa gidatzen duenari argibide asko ematen dio. Jolasa, gai desberdinetako galderei erantzutean datza. Gaiak hauxek dira: *evitación de los iguales, culpar al padre, culpar a la madre, autoinculparse, esperanza de reconciliación*. Parte-hartzaile bakoitzak fitxa-kolore bat aukeratzen du, ondoren dadoa botatzen da eta zenbaki handiena lortzen duenak ematen dio hasiera jolasari. Gainera, parte-hartzaile bakoitzari bi fitxa banatzen zaizkio. Ondo erantzunez gero, bi fitxa gehiago ematen dira eta beste parte-hartzaileek ere erantzun onak ematen badituzte, fitxa bana jasotzen dute.

3)ADIÓS TRISTEZA: Jolas honen helburua dolua lantzea da. 6 urtetik 18 urtera bitarteko parte-hartzaileentzat da. Jolaserako jarraibideei dagokionez, kartoizko taulan, laukitxoetan aurrera joan behar da. Laukitxo bakoitzari dagokion txartela hartu eta galdetzen edo proposatzen denari buruz hitz egin behar da. Txarteletan lantzen diren gaiak ondoko hauek dira: oroitzapenak, sentimenduak, aurre egitea, jolasa eta irudimena. Jolasak, gehienez ere 45 minutu iraun beharko luke.

4)EL BINGO DE LAS EMOCIONES: Jolas honen helburua emozioen inguruan hitz egitea eta parte-hartzaileekin enpatia lantzea da. 6 urtetik gorako hurrekin jolasteko da. Jolaserako jarraibideei dagokionez, parte-hartzaile bakoitzari taula bat ematen zaio. Taula bakoitzean emozioak agertzen dira. Jolasa gidatzen duenak txartel bat bat hartuko du eta txartel horretan dagoen emozioa dutenek, fitxa bat jarriko dute bere taulan. Parte-hartzaileek emozio horren inguruko zerbait partekatzen badute, bi fitxa emango zaizkie. Beste parte-hartzailearen batek kontatu denarekiko enpatia erakusten badu, (zerbait esanez, kontatuz...) beste fitxa zuri bat irabaziko du. Norbaitek 'bingo!' egiten duenean, fitxa gorri bat lortuko du (10 puntu balio dituenak). Jolasa nork irabazten du? Puntu gehien lortzen dituenak, ez 'bingo!' lehenengo esan duenak.

Praktika 3: Marrazkietako erakusle emozionalak, alerta-zeinuak identifikatzea

Marrazkiak familia-orientazioan erabiltzeko baliabide interesgarria dira. Giza-figuraren marrazkian badira zenbait erakusle emozional, profesional gisa alertan jarri al gaituztenak. Praktika honekin erakusle emozionaletara gerturatuko gara.

Erantzun galdera hauei:

1. Irakurri erakusle emozionala zer den (indicador emocional), webgune honetan: Erakusle emozionalak zein diren ikusteko erabili esteka hau. [Kontsulta: 2019-03-22]. Eskuragarri: <http://medicinafamiliar.uc.cl/html/articulos/110.html>
2. Familia batekin lanean zaude eta 9 urteko neskatoak marrazki hau egin du 'Pertsona bat irudikatu' kontsigna eman diozunean. Beti marrazkietan espezializatuta dagoen profesional batekin kontaktatu behar da, baina zenbait erakusle emozional ikusi dituzu marrazkian. Zein erakusle dira horiek?



2. Irudia. Egilearen artxiboko irudi bat

3. Erakusketa bat ikusten egon zara: 'Los monstruos de mi casa'. Begiratu ezazu 7 urteko Elisak eginiko marrazkia. Zein erakusle emozional ikusten dituzu? Erabili esteka hau: http://quindrop.com/monstresdecameva/pagina.php?Cod_fam=6

Gehiago jakiteko: MAGANTO, C. & GARAIGORDOBIL, M. El diagnóstico infantil desde la expresión gráfica: El test de dos figuras humanas. Clínica y Salud, 20(3) Madrid. 2009. [Kontsulta: 2019-03-22]. Eskuragarri: http://scielo.isciii.es/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S1130-52742009000300005

Laguntzarako fitxa

1. **Irakurri erakusle emozionala zer den (indicador emocional), webgune honetan: Erakusle emozionalak zein diren ikusteko erabili esteka hau. [Kontsulta: 2019-03-22]. Eskuragarri:**
<http://medicinafamiliar.uc.cl/html/articulos/110.html>

Erakusle emozionalak haurrek edo nerabeek dituzten konfliktuak erakusten dituzte. Zeinu-objektiboak dira eta haurren larrimina eta kezka erakusten dituzte, Koppitz-en arabera. Erakusle emozionala izateko hiru irizpide bete behar ditu: lehenik, arazo emozionalak dituzten haurrak eta arazo emozionalik ez dutenak desberdintzen ditu, bigarrenik, adin horretako haurren %eko 16ak baino gutxiagok egiten dute eta hirugarrenik, ez dauka adinarkein eta helduekin zerikusirik. Koppitz-ek 1984an 31 erakusle emozional zerrendatu zituen.

2. **Familia batekin lanean zaude eta 9 urteko neskatok marrazki hau egin du 'Pertsona bat irudikatu' kontsigna eman diozunean. Beti marrazkietan espezializatuta dagoen profesional batekin kontaktatu behar da, baina zenbait erakusle emozional bat ikusi dituzu marrazkian. Zein erakusle dira horiek?**

Begiratu lehen galderan aipatzen den estekan. Bertan, 2. Puntuan, *Descripción de detalles especiales y omisiones* atalean zenbait item agertzen dira: 'Dientes', eta 'Omiso' batzuk (gorputza, hankak, besoak, sudurra...). Lehen itemak agresibitatea erakutsiko luke eta omisioek antsietatea erakutsiko lukete, gorputzaren atalei lotutako antsietatea. Lehen galderan eranstean den esteka horretan, Koppitz egileak eginiko ikerketen laburpen bat ematen da eta bibliografia gehiago ere bai, sakondu nahi izanez gero.

3. **Erakusketa bat ikusten egon zara: 'Los monstruos de mi casa'. Begiratu ezazu 7 urteko Elisak eginiko marrazkia. Zein erakusle emozional ikusten dituzu? Erabili esteka hau:**
http://quindrop.com/monstresdecameva/pagina.php?Cod_fam=6

'Los monstruos de mi casa' erakusketan, sexu-abusuak jasan zituzten haurren marrazkiak ageri dira. Terapian eginiko marrazkiak dira, hots, ez dira, giza-figura bat egin kontsignapean eginiko marrazkiak. Hala ere, esanguratsuak diren erakusle emozional batzuk ageri dira, hala nola, gorputzik ez irudikatzea eta hortzak. Honela, gorputzik ez irudikatzeak gorputzarekiko antsietate larria erakutsiko luke eta hortzak egitea oldarkotasunaren seinale bat da.

Praktika 4: Familia-aniztasuneko zenbait gida ezagutzea

Familia-aniztasunaren puntuan ikusi ditugu zenbait familia-estruktura. Praktika honen bidez familia-estruktura anitzen araberako, garai ebolutiboaren araberako eta tematika/problematika zehatzen araberako hiru gida aztertuko ditugu.

Erantzun galdera hauei:

1. Arakatu Las Familias en las Aulas. Guía práctica de herramientas y recursos educativos de Diversidad Familiar liburua. [Kontsulta: 2019-03-22].

Eskuragarri:

<http://www.felgtb.org/temas/familias/documentacion/i/14219/274/las-familias-en-las-aulas>

Erantzun: Zer motatako gida da, hau da, zer lantzen da eta norentzako?

2. Arakatu Familiei zuzendutako adopzio ondorengo ADOPTIA gidaliburua.

[Kontsulta: 2019-03-22]. Eskuragarri: <http://adoptia.org/wp-content/uploads/2016/01/09-AGIN-GUIA-ADOPTIA-1-FAM-EUSK.pdf>

Erantzun: Zer motatako gida da, hau da, zer lantzen da eta norentzako?

3. Arakatu El novio de mi hija la maltrata. ¿Qué podemos hacer? [Kontsulta: 2019-03-22]. Eskuragarri:

http://www.juntadeandalucia.es/institutodelamujer/images/FONDO_DOCUMENTAL/PUBLICACIONES/MONOGRAFIAS_Y_OTRAS_PUBLICACIONES_DE_CARACTER_MONOGRAFICO/GUIAS_Y_MANUALES/el_novio_de_mi_hija_la_maltrata.pdf

Erantzun: Zer motatako gida da, hau da, zer lantzen da eta norentzako?

Laguntzarako fitxa

1. **Arakatu Las Familias en las Aulas. Guía práctica de herramientas y recursos educativos de Diversidad Familiar liburua. [Kontsulta: 2019-03-22]. Eskuragarri:**

<http://www.felgtb.org/temas/familias/documentacion/i/14219/274/las-familias-en-las-aulas>

Erantzun: Zer motatako gida da, hau da, zer lantzen da eta norentzako?

Gida honen bidez Familia Aniztasuna lantzen da eta baliabide praktikoak eskaintzen ditu hezkuntza ziklo desberdinetarako: Haur Hezkuntzarako, Lehen Hezkuntzarako eta Bigarren Hezkuntzarako. Norentzako da? Irakasleentzako, Guraso Elkarreentzako eta familientzako, hezkuntzako eremu anitzetan aplikatu ahal izateko. Familia aniztasunari buruzko literatura ere eskaintzen du. Baditu baita, publizitateko iragarkiak, telebistako saioak eta erreportaiak, familia aniztasuna ikuspuntu askotatik erakusten dena.

2. **Arakatu Familiei zuzendutako adopzio ondorengo ADOPTIA gidaliburua. [Kontsulta: 2019-03-22]. Eskuragarri:**

<http://adoptia.org/wp-content/uploads/2016/01/09-AGIN-GUIA-ADOPTIA-1-FAM-EUSK.pdf>

Erantzun: Zer motatako gida da, hau da, zer lantzen da eta norentzako?

Gida honen bidez orientabideak ematen dira adoptatu ondorengo garaiari begira. Euskadin dauden adopzio familiei buruzko datuak ematen dira, haur adoptatuen 'motxilari' buruz hitz egiten da eta labur esanda hiru mezu-mota erabiltzen dira: lekukotasunak familien eta adoptatutako haurren esperientziak eta bizipenak, azalpenak eta hezkuntza-funtsak. Norentzako da? Gida hau dagoeneko haur bat adoptatu dutenentzako edo haurra iristekotan dutenentzako egokia da. Baita, aurrerago haurren bat adoptatzea pentsatu dutenentzako.

3. **Arakatu El novio de mi hija la maltrata. ¿Qué podemos hacer? [Kontsulta: 2019-03-22]. Eskuragarri:**

http://www.juntadeandalucia.es/institutodelamujer/images/FONDO_DOCUMENTAL/PUBLICACIONES/MONOGRAFIAS_Y_OTRAS_PUBLICACIONES_DE_CARACTER_MONOGRAFICO/GUIAS_Y_MANUALES/el_novio_de_mi_hija_la_maltrata.pdf

Erantzun: Zer motatako monografiko hau da, hau da, zer lantzen da eta norentzako?

Monografiko honen bidez familiei euren alabek jasaten duten genero-indarkeriari modu eraginkor batean aurre egiten lagundu nahi da. Gainera, arlo honetan diharduten profesionalei lagundu nahi zaie. Koaderno hau beste argitarapen digital bazuekin batera doa, eta doan deskargatu ditzakezue *Instituto Andaluz de la Mujer*-en web-etik:

http://www.juntadeandalucia.es/institutodelamujer/index.php/fondo-documental/publicaciones/libros_y_otros_recursos_de_caracter_monografico/guias-manuales/

Praktika 5: Belaunaldien arteko harremanak: Bideo bat ikustea eta gida bat erabiltzea

Praktika honetan bideo bat eta gida bat erabiliko ditugu. Belaunaldien arteko harremanak sustatzea Familiei laguntzeko erakunde arteko IV. Planeko 3. ardatzeko 7. helburua da, familia-aniztasunaren barruan sartzen dena.

Ikusi dezagun 'El arte de ser abuelos' liburuaren egileari, Franco Voli-ri 'guíainfantil.com'ekoek eginiko elkarrizketa. Hauxe da bideoa (2:01): <https://www.youtube.com/watch?v=RURGAtYAKO4>. Ondoren Raquel Amaya-ren 'Abuelos' gida izango dugu eskuartean, zehazki 81-83 orriak.

Erantzun galdera hauei:

1. Bideoan, zein ekarpen garrantzitsu egiten dute aiton-amonek familietan Franco Voli-ren ustez?
2. Aiton-amonak askotan ilobekin egoten dira gurasoak lanetik etorri bitartean eta/edo asteburu batzuetan. Iloben etxeko lanen jarraipenean egon daitezke batzuk. Pentsatu ezagutzen duzun aiton-amona eta iloba baten harremanean. Etxeko lanetan lagundu dezakete? Hitz egin aiton-amonekin, agian ahal dute eta/edo nahi dute eta. Komenigarria da irakurtzea gidako 81-83 orriak. Bertatik moldatu dut txantiloi hau.

ETXEKO-LANETAN LAGUNDU AL DU AITONAK EDO AMONAK?	BAI	EZ	AGIAN BAI
Iloben ikasteko denbora antolatuz			
Ikasteko toki egokia prestatuz			
Zalantzak argituz			
Errefortzuak emanik lan egin ondoren			
Beste zerbait			

Laguntzarako fitxa

Erantzun galdera hauei:

1. Bideoan, zein ekarpen garrantzitsu egiten dute aiton-amonak familietan Franco Voli-ren ustez?

- Aiton-amonak eroso sentitu behar dira familian
- Transmititu behar diete ilobei familiari buruz, familiaren historia, ekipo bat garen ideia transmititzea, emaitz positiboak, aiton-amonak ere gurasoak izan dira
- Askotan lehen ez zen jakiten nola izan guraso hobea; baina, inoiz ez da berandu
- Eredu, adibide izan daitezke aiton-amonak.

2. Aiton-amonak askotan ilobekin egoten dira gurasoak lanetik etorri bitartean eta/edo asteburu batzuetan. Iloben etxeke lanen jarraipenean egon daitezke batzuk. Pentsatu ezagutzen duzun aitona-amonak eta iloba baten harremanean. Etxeko lanetan lagundu dezakete? Hitz egin eurekin. Komenigarria da irakurtzea gidako 81-83 orriak. Bertatik moldatu dut txantiloia hau.

ETXEKO-LANETAN LAGUNDU AL DU AITONAK EDO AMONAK?	BAI	EZ	AGIAN BAI
Iloben ikasteko denbora antolatuz			
Ikasteko toki egokia prestatuz			
Zalantzak argituz			
Errefortzuak emanik lan egin ondoren			
Beste zerbaitekin			

Praktika 6: Irakurketa. Bitartekaritza guraso-hezkuntzako tailerretan.

Irakurri dokumentu hau: Federación Española de Municipios y Provincias-en (2010) La educación parental como recurso psicoeducativo para promover la parentalidad positiva argitarapeneko 27-35 orriak irakurri. Hemen eskuragarri:

<https://www.google.com/search?q=Federaci%C3%B3n+Espa%C3%B1ola+de+Municipios+y+Provincias+%282010%29.+La+educaci%C3%B3n+parental+como+recurso+psicoeducativo+para+promover+la+parentalidad+positiva.&ie=utf-8&oe=utf-8&client=firefox-b-ab>

Erantzun galdera hauei:

1. Bitartekariak, parte hartzea bultzatzen dute taldeka antolatzen diren guraso-hezkuntzako tailerretan. Gainera, taldeko helburuak lortzen laguntzen dute. Baina ez hori bakarrik. Zer egiten dute benetan klabea dena?
2. Zein dira gurasotasuneko taldekako programak gidatzen dituzten bitartekarien funtzioak?
3. Zein konpetentzia izan behar ditu testuinguru honetan bitartekariak?
4. Familia-erresilientzia zer da? Entrenatu al da? Nola?

Laguntzarako fitxa

1. Bitartekariak, parte hartzea bultzatzen dute taldeka antolatzen diren guraso-hezkuntzako tailerretan. Gainera, taldeko helburuak lortzen laguntzen dute. Baina ez hori bakarrik. Zer egiten dute benetan klabea dena?

Aldaketa pertsonala hobesten dute, hau da, analisi pertsonalaren bidez, aldaketa pertsonala, jarrerazkoa eta/edo portaerazkoa hobesten da. Honela, bitartekariari, aldaketarako bitartekaria ere deitzen zaio. Horretarako, norbere ideien eta portaeren kontzientzia hartzen laguntzen du eta taldekideen portaeren ondorioetatzen pentsatzen laguntzen du. Analisi pertsonalaren ondorioz, norbere aldaketarako helbururen bat explizito egitea bilatzen du.

2. Zein dira gurasotasuneko taldekako programak gidatzen dituzten bitartekarien funtzioak?

Liburu honetan agertzen diren moderatzailearen funtzioetako batzuk hauek dira:

- Bitartekariak, taldeko beste kide bat bezala, ezagutza eraikitzen laguntzen du. Gurasoen eta bitartekariaren ekarpenak, denak dira baliotsuak.
- Ekimen pertsonala eta konpetentzia pertsonala indartu eta babestu egiten ditu.
- Saio bakoitzean negoziazioa eta kontsentsua bilatzen du.
- Bitartekariak, beste taldeko kide bat bezala, bere ideiak, sinismenak eta praktikak plazaratzen ditu.
- Gurasoen kezkek eta beharrak kontuan hartzen ditu
- Pistak ematen ditu gurasoek euren problemak autonomiaz ebazteko.
- Taldeko klima emozionala zaintzen du, beti positiboa eta errefortzuz betea izan dadin.

3. Zein konpetentzia izan behar ditu testuinguru honetan bitartekariak?

Helburuak eta instrukzioak modu argi batean formulatzen jakitea, giro epela mantentzen laguntzea, lidergo malgua izatea, taldearen ezaugarriak modu errealista batean baloratzea, etab.

4. Familia-erresilientzia zer da? Entrenatu al da? Nola?

Familia-erresilientzia prozesu dinamiko bat da eta familiari ingurune mehatxu eta erretoei modu positiboan erreakzionatzen ahalbidetzen dio. Entrenatu daiteke, familiaren sinismenak, antolatzeeko patroiak eta komunikazio-prozesuak entrenatuz.

Praktika 7. Bideo bat ikustea. Gurasoen hezkuntza-estiloak. Bideo hau Fundación de Ayuda contra la Drogadicción (FAD)-ek eginikoa da. Hemen esteka:

<https://www.youtube.com/watch?v=TAFYrQK-ADk>

Bideo honetan, aita eta seme baten artean, egoera berdin baten aurrean hezkuntza estilo desberdinak ageri dira (zabarra –negligente-, autoritarioa –autoritario-, babesleegia –sobrepotección- eta demokratikoa –democrático-). (6:47)

Erantzun galdera hauei:

1. Bete taula hau bideoan entzuten/ikusten duzuna idatziz.

ZABARRA	AUTORITARIOA	BABESLEEGIA	DEMOKRATIKOA
Hezkuntza-estilo honen ezaugarriak dira...	Hezkuntza-estilo honen ezaugarriak dira...	Hezkuntza-estilo honen ezaugarriak dira...	Hezkuntza-estilo honen ezaugarriak dira...
-			
-			
.			
Seme-alaben ezaugarriak dira...	Seme-alaben ezaugarriak dira...	Seme-alaben ezaugarriak dira...	Seme-alaben ezaugarriak dira...
-	-	-	-
-	-	-	-
.	.	.	.

2. Gurasoa/tutorea/hezitzailea, bazara hausnartu hurrekin duzun zure jarduteko moduetan. Lau estiloetatik zein da zurearen antzekoena?

3. Zeinek uste duzu laguntzen duela hurren garapenean? Hausnartu.

Laguntzarako fitxa

1. Bete taula hau bideoan entzuten/ikusten duzuna idatziz.

ZABARRA	AUTORITARIOA	BABESLEEGIA	DEMOKRATIKOA
Hezkuntza-estilo honen ezaugarriak dira... -Gurasoek afektu eta komunikazio gutxi erakutsi -Gurasoek inposaketa edo kontrol gutxi -Gurasotasuneko konpetentzia delegatu egiten dute	Hezkuntza-estilo honen ezaugarriak dira... -Gurasoek afektu eta komunikazio gutxi -Gurasoek kontrol handia; arau eta ondorio argiak	Hezkuntza-estilo honen ezaugarriak dira... -Gurasoek afektu eta komunikazio asko -Kontrol eta inposaketa gutxi, autonomiarik gabe	Hezkuntza-estilo honen ezaugarriak dira... -Gurasoek afektua eta komunikazioa maila altuan -Inposaketa altua, arau argiak
Seme-alaben ezaugarriak dira... -Beste batzuegan bilatzen dute babesa -Hutsuneak oinarritzko gizarte-trebezietan -Ziurtasun pertsonal eza	Seme-alaben ezaugarriak dira... -Arauk ulertu gabe bete -Autoestima baxua, agresitibitatea, oposaketa, etab.. -Autonomia gutxi, etab.	Seme-alaben ezaugarriak dira... -Heldugabezia edo ziurtasun eza -Menpekoak eta iraunkortasunik gabe	Seme-alaben ezaugarriak dira... -Autoestima sana eta garatua -Ekimena Erantzunkizunaren zentzu handia

2. Gurasoa/tutorea/hezitzailea, bazara hausnartu haurrekin duzun zure jarduteko moduetan. Lau estiloetatik zein da zurearen antzekoena? Hausnartu.

3. Zeinek uste duzu laguntzen duela haurren garapenean? Hausnartu. Irakurri dezakezu baita Arrieta, Aizpitarte, Unanue eta Elosua-ren (2005) artikulu hau: <http://www.ehu.eus/ojs/index.php/Tantak/article/view/3216/4142>

Praktika 8: Bideo bat ikustea. Etxeko bixita bat.

Bideo bat ikusiko dugu, Tania Lopez-ek sorturikoa eta jarraian datorren txantiloia beteko duzu. Horretarako, Escudero-ren Guía práctica para la intervención familiar liburuan oinarrituko gara, 7. Kapituluan hain zuzen ere. Bideoa hemen eskuragarri: (<https://www.youtube.com/watch?v=NjVgrj2XJdc>) (8:07)

Erantzun galdera honi:

1. Profesionalak etxeko bixita egin duenean, nola erabili ditu elementu teknikoak, hau da, denbora, espazioaren erabilpena, portaeren kontrolerako arauak eta bukaera, elkarriketa eraginkorra izateko?

ELEMENTU TEKNIKOAK	BAI	EZ
Denboraren erabilpenean, ondo fikatu du hitzordua?		
Ondo finkatu du espazioaren erabilpena?		
Etxeko portaeren kontrolerako arauak finkatuta daude?		
Ondo bukatu al du bixita? Zer egin du?		

Laguntzarako fitxa

1. Etxeko bixita batean zein elementu tekniko erabiliko ditugu elkarrizketa eraginkorra izan dadin?

Batetik, denboraren erabilpena, bestetik, espazioaren erabilpena, portaeren kontrolerako arauak eta bukatzearen errituala.

Denboraren erabilpena: nagusiki hitzorduak hasi eta bukatzeari buruz ari gara. Oso garrantzitsua da hitzordua ondo finkatzea, galdetzea ordu zehatz batean zer egiten duten, papertxo batean idatziz jartzeko eskatzea nortzuk egoten diren/egon behar diren zein ordutan eta beti insistitu behar da aldaketaren bat badago jakinarazteko mesedez. Garrantzitsua izaten da baita familiari esatea zenbat iraungo duen bixitak eta zein egotea nahi den, bestela 10-15 minutura familiakoak desagertzen (joaten) hasi datezke. Profesionalak ere ezin badu, abixatu egingo du alde aurretik.

Espazioaren erabilpena: hezitzailea asertiboa izango da familiaren etxean bilerak egiteko aukeratzen den tokiarekiko. Eskatu daiteke toki lasai bat, seme-alabaren jostailua ekartzeko eta aldameneko gelan egotea komenigarria bada... Lehen bixitan toki honek funtzionatu badu, hurrengoan ere tokia errepikatu egingo da. Bestalde, behaketaren bidez hainbat zehaztasun ikusi ditzakegu. Gerta daiteke baita, etxetik kanpo dagoen beste toki batean bilera egin beharra.

Portaeren kontrolerako arauak: Etxeko elkarrizketa oztopatuko duten portaerak badaude, familia hezitzaileak eskatu dezake arau batzuk egotea: 'Iruditzen zaizue zuen etxean biltzen garenean telebista itzalita eukitzen baduzue?' edo 'Zer iruditzen etxean bixita egiten dizuedanean erre gabe bada... edo leihoa irekita?'

Bukatzearen errituala: Harreman profesionala dela erakusteko ondo egon daiteke etxeko bixita batean notak hartzea, elkarrizketaren arauak gogoratzea, audioa grabagailua bat erabiltzea, etab. Bukaera garrantzitsua da eta konklusioa idaztea komenigarria. Konklusio horretan, hartu diren konpromezuak eta zereginak idazten dira, askotan akta-laburpen bat bezala. Batzuetan beharrekoa izan daiteke familiei esatea diskutitu duten gaia ez ukitzea hurrengo elkarrizketara arte.

Praktika 9: Bideo bat ikustea. Familia-terapia.

Bideo-zatitxo bat ikusiko dugu. Pixkat kokatu egingo zaitut. Argentina-ko 'Canal 13-n emaniko 'Trátame bien' (Barone, 2009) serie honetan, krisi ekonomiko eta personal batean dagoen gizon bat, José (Julio Chávez) bere semea ez dela bere seme biologikoa enteratzen da: José hau eta bere emazte Sofía (Cecilia Roth) momentu labur batean banatu ziren unean, Sofía-k beste gizon batekin mantendutako harreman batetik jaio zen semea. Eskuragarri hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=YpvchdP-Dqk> (6:10)

Erantzun galdera hauei:

1. Zein dira terapeutaren sarrerako hitzak?
2. Zer da familia bideoan ikusten ari zareten familiarentzat? Eta zer esango zenuke zuk?
3. Zein dira terapeutaren azken hitzak eta zein eredu erabiltzen du familiak lan egiten jarraitu dezan?
4. Zein dira terapeutak egiten dituen praktika on batzuk.

Laguntzarako fitxa

Hona hemen zenbait erantzun, beste batzuk ere egon daitezke, noski.

- 1. Zein dira terapeutaren sarrerako hitzak?** Espazio bat eskaintzen dio familia osoari beste nonbaiten kontatu ezin dutena edo ez dakitena nola esan kontatzeko.
- 2. Zer da familia bideoan ikusten ari zareten familiarentzat? Eta zer esango zenuke zuk?** Esaten dute ez dela familia bat, desastre bat dela. Terapeuta edo familia hezitzaile bezala esan daiteke momentuan euren esku zegoenarekin edo eurek zekitenaren erantzun dutela. Orain izan daitekeela pentsatzeko momentua eta beste alternatiba kontsentsuatu batzuk planteatzeko unea.
- 3. Zein dira terapeutaren azken hitzak eta zein eredu erabiltzen du familiak lan egiten jarraitu dezan?**

Hauek dira azken hitzak:

«Bueno, esto es una familia, a veces las familias son un desastre, la mayoría de las familias son un desastre. Llena de soledades, de angustias, de tristeza, de incomunicación, de imposibilidad de amarse, aunque se amen, porque todos se quieren en esta familia. Bueno, pero esto es una familia, y una familia sigue siendo una familia, aunque no suceda en el mismo espacio, aunque, tu padre se vaya de tu casa, aunque tu madre se vaya de tu casa, aunque vos te vayas de tu casa, esto igual es una familia y ustedes pueden seguir sosteniéndola y resignificándola, porque esta es la familia que tienen ustedes, esta es la familia que ustedes son capaces de tener y esta es la real. ¿Qué les parece?»

Eta, ereduari dagokionez, eredu erresiliente bat erabiltzen du, ez eredu ideal bat. Arazoak dituzten familiak erabiltzen ditu eredu bezala eta familia eredu errealean arazoak egoten dira. Eurek ahal dutela familia berreraiki esaten die terapeutak.

- 4. Zein dira terapeutak egiten dituen praktika on batzuk.**

- Denak batera zitatzen ditu.
- Kaosa jasaten du eta ez da urduritasunak eraginda bapatean galderak egiten hasten.
- Ez du erantzuten jarraian, espazio bat uzten du hitz egiten jarraitzeko.

10. praktika: Autoebaluazioa

Bete ezazu kurtso honen autoebaluazioaren txantiloia, hausnarketarako.

FAMILIA-ORIENTAZIOAREN AUTOEBALUAZIOA

GALDERAK	Erabat desados 1	Desados 2	Hala nola 3	Ados 4	Erabat ados 5
1. Familia orientazioan ikasitakoarekin pozik nago					
2. Ikasgaiaren edukiak interesgarriak eta egokiak iruditu zaizkit					
3. Metodologia egokia iruditu zait					
4. Ikasteko materiala baliagarria iruditu zaizkit					
5. Familia-orientazioari buruzko ezagutzak handitu/zehaztu zaizkit haseratik hona.					
6. Zein informazio sakondu nahi dut?					